

**SAN SEBASTIAN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA SOZIETATEAREN
2017., 2018. ETA 2019. EKITALDIETAKO URTEKO KONTUEN KONTU
IKUSKARITZA ZERBITZUAK PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ
KONTRATATZEKO LIZITAZIOA**

ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA

Ebaluazio Batzordeak luzatutako proposamena ikusirik eta San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa SAko Kontratazio Organoak igorri duen dokumentazioa eskatzeko errekerimendua esleipenerako aukeratutako lizitatuak —Alter Consulting— behar bezala bete ondoren, Kontratazio Organo horrek SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA sozietatearen 2017., 2018. eta 2019. ekitaldietarako urteko kontuen kontu-ikuskaritza enpresa horren alde esleitzea erabaki du.

Aurkeztu diren eskaintzak, dagozkien Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako proposamenak baloratzeko irizpideen arabera aztertu eta baloratu ditu Ebaluazio Batzordeak,

Publizitaterik gabeko negoziazio-prozesura 3 enpresa gonbidatu dituzte:
Alter Consulting, F-20 Auditores eta Bultz Auditoría.

Azkenik, eta dagokion negoziazio-prozesuaren ondoren, Alter Consulting enpresak aurkeztu du eskaintza ekonomiko abantailatsuen —Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazio-irizpideak kontuan hartuta—, honako prezio unitarioekin / lizitazioko aurrekontuarekin eta iraupen-epearekin:

- 4.800 €/urte + BEZ 2017., 2018. eta 2019. ekitaldietarako.

Kontratua formalizatuko da jakinarazpen hau jasotzen duen egunetik hasi eta ondorengo hamabost egun balioduneko epean.

Donostia, 2017ko abenduaren 26a

**DONOSTIA TURISMOA-SAN SEBASTIÁN TURISMO SA-KO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA**



Manuel Narváez Morales